

ANTZARAK FERRATZERA

Inor pikutara bidatzeko, sortu ditzagun molde berriak!

ZOAZ...

- Txirritari bi alkandorak plantxatzera!
- Txanogorritxorekin loreak biltzera!
- Angulak orraztera!
- Asegarcera, pilotak ukitzera!
- Infernura, eta gasolina eraman!
- Eiffeleko orratz puntara, oinutsik, eta eman pauso bat aurrerantz!
-
-

Kale
hizkera

TITIETARAINO NAGO!

Kokotaino gaudela, nola esan?

- Txirlako tximetaraino nago!
- Kiwietaino nago!
- Matxitxako puntaraino nago!
- Altzürüküko azkenengo ü-raino nago!
-
-

IKUSIKO DUN/K!

NIK HARRAPATZEAN...

- kenduko dizkizut bizkarreko hotzak!
- joango zaizkizu sasi arteko azkurak!
- emango dizudan belarrondokoarekin, paretak emango dizu bigarrena!
- potroak espartzu sokaz lotu, eta Iturengo joaldunetara bidaliko zaitut, antxintxika!
- nork-nori-nor tabla osoa errepasatuko dizut!
- begirik gabeko emotikono bat izango da zure aurpegia!
-
-